

- 1. Espainiako Konstituzioaren arabera, nola antolatzen da estatua lurraldeari dagokionez?**
  - a. Udalerri, probintzia eta sortzeko diren autonomia-erkidegoetan
  - b. Udalerri eta probintzietan bakarrik
  - c. Autonomia-erkidegoetan bakarrik
  - d. Udalaz gaindiko toki-erakundeetan
  
- 2. Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren arabera, zer eskumen-mota du Euskal Autonomia Erkidegoak Estatuaren izenean ez dauden artxibategi, liburutegi eta museoen gainean?**
  - a. Estatuak emandako arauak garatu eta betearaztekoa
  - b. Bakarreko eskumena
  - c. Estatuaren legeria bere lurraldean betearaztekoa
  - d. Ez dauka eskumenik arlo horretan
  
- 3. Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren arabera, zenbat urterako hautatuko da Eusko Legebiltzarra?**
  - a. Bost urterako
  - b. Sei urterako
  - c. Lau urterako
  - d. Zazpi urterako
  
- 4. Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen 2. artikuluaen arabera, lurralde historikoek ezartzen duten zerga-sistemak zein printzipiori jarraitu beharko dio besteak beste?**
  - a. Zerga-preskripzioa
  - b. Estatuko zergen egitura orokorra kontuan izatea
  - c. Zerga-subiranotasuna
  - d. Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena



5. Zer eskumen dute lurralde historikoetako foru-organismoek lurralde historikoaren titulartasuneko artxibo eta liburutegien gainean?
- Erakunde erkideek emandako arauak garatu eta betearaztekoa
  - Bakarreko eskumena
  - Erakunde erkideen legeria beren lurraldean betearaztekoa
  - Ez daukate eskumenik arlo horretan
6. Herri Kontuen Euskal Epaitegia Euskal Autonomia Erkidegoko berezko organoa da, eta honako honen mende dago zuzenean:
- Dirubideen Euskal Kontseilua
  - Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia
  - Eusko Jaurlaritza
  - Eusko Legebiltzarra
7. Nolakoak dira gaiagatik edo lurraldeagatik nabarmenki eskumengabea den organo batek emaniko administrazio publikoen egintzak?
- Erabat deusezak
  - Deuseztagarriak
  - Baliozkotzeko modukoak
  - Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena
8. Legez edo Europar Batasuneko zuzenbidean beste zenbaketarik adierazten ez den bitartean, epeak egunetan jartzen badira, zer egun-mota direla ulertuko da?
- Egun naturalak direla ulertuko da; beraz, zenbatuko dira larunbatak, igandeak eta jaiegun izendatutakoak
  - Egun baliodunak direla ulertuko da; beraz, ez dira zenbatuko larunbatak, igandeak eta jaiegun izendatutakoak
  - Egun baliodunak direla ulertuko da; beraz, halaber zenbatuko dira larunbatak, igandeak eta jaiegun izendatutakoak
  - Epeak ezin dira egunetan adierazi



**9. Zein da baieztapen zuzena administrazio-xedapen orokorre dagokienez?**

- a. Administrazio-xedapen orokorren aurka gora jotzeko errekurtoa aurkez daiteke
- b. Administrazio-xedapen orokorren aurka aukerako berraztertze-errekurtoa aurkez daiteke
- c. Administrazio-xedapen orokorren aurka ezin da errekurtsorik aurkeztu administrazio-bidean
- d. Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena

**10. Sektore Publikoko Kontratuen 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 3. artikulua arabera, eta lege horren ondorioetarako, zein da baieztapen zuzena fundazio publikoei dagokienez?**

- a. Sektore publikoaren parte dira
- b. Administrazio publikoak dira, eta ez dira hartuko botere adjudikatzailatzat
- c. Sektore publikoaren parte dira, eta administrazio publikotzat hartuko dira
- d. Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena

**11. Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 70. artikulua arabera, funtzionarioek, gutxienez ere, .....(e)ko oporrak hartzeko eskubidea izango dute zerbitzuan egindako urte bakoitzagatik edo lan egin duteneko aldia txikiagoa balitz, horren heinean dagozkien egunetakoa. Zer erantzun dagokio hutsune horri?**

- a. 15 egun
- b. 20 egun
- c. 40 egun
- d. Hilabete

**12. Zein da erantzun zuzena edozein bilkuratan euskaraz mintzatzeko eskubideari dagokionez?**

- a. Funtsezko hizkuntza-eskubidea da, Euskal Herriko herritarrei aitortua Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean
- b. Ez da jasotzen lege-mailako ezein arautan
- c. Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen edukitik ondoriozta daiteke, baina ez da berariaz jasotzen
- d. Ez da existitzen



**13. Nola izendatzen dira Batzar Nagusietatik sortzen diren izaera orokorreko xedapenak?**

- a. Foru dekretu
- b. Foru agindu
- c. Foru arau
- d. Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena

**14. Diputatu Nagusiak, Foru Aldundiak aurretiaz eztabaidatuz gero, Batzar Nagusien aurrean bere egitarauari zein jendaurreko adierazpen orokorrari buruzko konfiantza galdekizuna aurkeztu ahal izango du. Hori gerta baledi, Batzar Nagusien botoen zer gehiengo lor lezanean hartuko litzateke eskuetsizat konfiantza?**

- a. Gehiengo osoa
- b. Hiru bosten
- c. Bi heren
- d. Gehiengo bakuna

**15. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauren 5. artikulua arabera, zein da baieztapen zuzena bere lurralde-eremuan ekintza positiboko neurriak egikaritzeari dagokionez?**

- a. Estatuko administrazioko organo eskudunari esleitutako eginkizuna da
- b. Debekaturik dago
- c. Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio eginkizun hori
- d. Ez da egokia arau-xedea lortzeko

**16. Hauetatik zein EZ da liburutegi nazional baten eginkizuna?**

- a. Herrialdeko argitalpen guztiak eskuratzea, kontserbatzea eta eskuragarri jartzea
- b. Herrialdeari buruzko atzerriko lanak eskuratzea
- c. Bibliografia nazionala sortzea eta informazio bibliografikorako zentro nazional moduan jardutea
- d. Bere funts guztien doako erreprografia-zerbitzua eskaintzea



**17. IFLA/UNESCOren Liburutegi Publikoen Aldeko Manifestuaren (1994) arabera, zein da zuzena?**

- a. Haien funtsak orokorrak dira, baina erabiltzaileak zehatzak eta espezializatuak dira
- b. Haien eginkizunetako bat da hezkuntza bultzatzea
- c. Funtsak eta zerbitzuak zentsura ideologiko, politiko edo erlijiozkoaren mende egon daitezke
- d. Haien oinarritzko helburuak hezkuntza eta ikerketa dira

**18. Zein dira liburutegi hibrido baten ezaugarriak?**

- a. Bilduma birtual batek eta bilduma fisiko edo analogiko batek osatuta dago
- b. Liburutegi automatizatu bat da bere dokumentuetarako irispidea ematen duena irakurketa geletan
- c. Berezko katalogoa edukitzeaz gain, katalogo kolektibo baten zati ere bada
- d. Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena

**19. Hauetatik zein da objektu digitalen biltzaile eta Europeanaren agregatzaile?**

- a. Liburuklik
- b. Liburutegi Digital Hispanikoa
- c. Cibera
- d. Hispana

**20. Zer eratako ekimena da Open Access?**

- a. Liburutegi guztiek beren bildumak formatu digitalean eta doan eskain ditzatela lortzera bideratutakoa
- b. Komunitate zientifikoak edo akademikoak sortutako informazioa jabetza intelektualari buruzko araudiaren arabera eskuragarri egotea nahi duena
- c. Informazioa guztientzat doan eta murrizketarik gabe egon dadila lortu nahi duena
- d. Budapesteko, Bartzelonako eta Berlingo (BBB) mende hasierako adierazpenetan oinarriturik hainbat erakundetatik bultzatutako ekimenei esker finkatu dena



**21. Aukera hauetatik zein EZ da liburutegiak kudeatzeko sistema integratu bat?**

- a. ABSYS
- b. INNOPAC/MILLENNIUM
- c. OCLC
- d. UNICORN

**22. Zertzuk ditu katalogo hiztegi batek?**

- a. Fitxa bakarraren sistemaren arabeko erregistro bibliografikoak
- b. Liburutegian dauden era guztietako materialen erregistro bibliografikoak
- c. Egileen eta lan anonimoen, izenburuen eta gaien arabera alfabetikoki ordenatutako erregistro bibliografikoak
- d. Liburutegiko funts inprimatu guztiak

**23. Zeri dagokio ISBD kontsolidatuaren 0 (zero) eremua?**

- a. Eremu zaharkitu ez nahitaezkoari
- b. Dokumentu-motaren izendapen orokorraren eremuari
- c. Materialaren edo bitarteko-motaren eremu espezifikoki
- d. Edukiaren formaren eta baliabide-mota eremuari

**24. Zein baieztapen da zuzena ISSNri dagokionez?**

- a. Gako-izenburuari lotuta dago banandu ezin den eran
- b. Gidoi baten bidez 2 multzotan banatuta dauden 8 digituko kode bat da, soilik paperean inprimatuta dauden aldizkako argitalpen eta baliabide jarraituetarako
- c. Argitalpenari izenburua aldatzen zaionean, aldaketa funtsezkoa ez bada, ez da ISSN berri bat eskatu behar
- d. Argitalpena hainbat hizkuntzatan argitaratzen bada, guztiei dagokie ISSN bera

**25. Zer da erregistro bibliografikoa egiteko oinarritzat aukeratu den atariaren aurretik edo ondoren, batzuetan, ageri ohi den ataria?**

- a. Atariaurrea
- b. Sasiataria
- c. Atari gehigarria
- d. Atari kontrako orrialdea



**26. Zer da inprentaren eta edizioaren arloan legediak ezarritakoa kontuan izan gabe egindako edizioa?**

- a. Edizio pirata
- b. Ezkutuko edizioa
- c. Salgai ez dagoen edizioa
- d. Edizio-proba

**27. Katalogazio Arauen arabera, nola transkribatuko da pareko edizioaren aipua monografiaren katalogazioan?**

- a. Lehenbizi, izenburu nagusiaren hizkuntzan datorrena
- b. Beti lehenengo ageri den aipua
- c. Izenburu nagusia zenbat hizkuntzatan agertu, hainbat hizkuntzatan
- d. Argitalpenean agertzen den forma zehatzarekin beti

**28. Katalogazio-prozesu bat liburutegi batek egiten duenean eta haren erregistroak sarea osatzen duten gainerako liburutegiei banatzen zaizkienean, zer izen hartzen du katalogazioak?**

- a. Katalogazio deribatua
- b. Katalogazio kooperatibo deribatua
- c. Katalogazio zentralizatua
- d. Katalogazio partekatua

**29. Katalogazio Arauetan jasota dago erregistro analitikoa, adiera hertsian. Arauon arabera, zein da baieztapen zuzena hari dagokionez?**

- a. Honako hauek ditu: zatiaren deskribapena, loturazko elementu bat eta iturri izan den dokumentua identifikatzeko adierazpen labur bat
- b. Honako hauek ditu: izenburuaren, erantzukizunaren aipuaren eta zatiari dagozkion argitalpenaren eremuko elementuak eta iturri den dokumenturako esteka
- c. Honela definitzen da: argitalpen seriatu bateko artikulua bat deskribatzen duen erregistro bibliografiko bat egitea
- d. IN preposizioaren ondoren, honako elementu hauek jasoko dira: lan nagusiaren goiburua, edizioaren aipua eta argitalpenaren eremuko beharrezko diren datuak



**30. Nolakoa izango da aldizkakotasunari buruzko oharra argitalpen seriatuetan?**

- a. Nahitaezkoa izango da beti
- b. Nahitaezkoa izango da, baldin eta 1. eremuan jaso ez bada
- c. Aukerakoa izango da beti
- d. Aukerakoa izango da, baldin eta 1. eremuan jaso ez bada

**31. Zer baieztapen da zuzena paperean inprimatutako dokumentu kartografiko bat beste material baten gainean muntatuta dagoenean?**

- a. Nahitaez adierazi behar da euskarria
- b. Garrantzitsua dela iritziz gero, euskarria adieraz daiteke
- c. Dokumentuaren neurriak aldatzen badira bakarrik da nahitaezkoa adieraztea
- d. Aurreko erantzunetako bat ere ez da zuzena

**32. Zeren bidez egingo da sarrera nagusia prozesu penal baten autoak, gerra-kontseiluak eta abar jasotzen dituzten argitalpenetan?**

- a. Izenburuaren bidez
- b. Auzia jarri duen pertsona edo erakundearen izenaren bidez
- c. Auzitegiaren izenaren bidez
- d. Prozesatuaren izenaren bidez

**33. Espainia Europako Erkidegoei Atxikitzeko Itunaren testu osoan, zein izango da sarrera nagusia?**

- a. Espainia
- b. Europako Erkidegoak
- c. Kasuan kasuko izenburu hautatua
- d. Izenburu nagusia

**34. Nola jasoko dira partaidetza adierazten duten erantzukizunen aipu formalak, nahiz eta erantzuleen izenak aipatu ez?**

- a. Oharretan jasoko dira
- b. Erantzukizunaren aipuan jasoko dira
- c. Jaso gabe utz daitezke
- d. Ez dira erantzukizunaren aipuan adieraziko





**35. Egile beraren bi lan, izenburu orokorrik izan ala ez, batera argitaratu diren kasuetan, erregistro bibliografikoaren hasieran egilea adieraziko da, eta zer gehituko da ondoren?**

- a. Izenburu hautatu orokor bat, zeinari hizkuntzaren izena gehituko baitzaio
- b. Izenburu hautatu orokor bat eta bi lanen egile-izenburuen bigarren mailako sarrerak
- c. Lehenengo lanaren izenburu hautatua eta bigarren lanaren egile-izenburuen bigarren mailako sarrera
- d. Izenburu nagusia eta bi lanen egile-izenburuen bigarren mailako sarrerak

**36. Erregistro bibliografiko batean MARC 785 etiketa aurkitzen badugu, eta bigarren adierazlea 1 bada, zer adierazten du horrek partez deskribatutako lanari dagokionez?**

- a. Osteko izenburuak jarraitu diola
- b. Osteko izenburuaren jarraipena dela
- c. Osteko izenburuak bereganatua dela
- d. Osteko izenburuak ordezkatu duela

**37. Zer adierazteko erabiltzen da MARC 510 etiketa?**

- a. Lanaren ekoizpenean edo sorreran parte hartu duten parte-hartzaileen, interpreteen, narratzaileen, aurkezleen edo aktoreen izenak
- b. Lanaren ekoizpenean edo sorreran parte hartu duten pertsona edo erakundeen izenak, interpreteenak kenduta
- c. Deskribapen bibliografikoetako aipuak nahiz erreferentziak, aipamenak, laburpenak edo deskribaturiko dokumentuari buruzko eduki-aurkibideak
- d. Zenbaketaren edo argitaratzeko moduaren irregulartasunak eta berezitasunak

**38. MARC 21 formatuaren arabera, zer baieztapen da zuzena goiburuari dagokionez?**

- a. Sistemak automatikoki sortzen duen eremu logiko bat da, ez adierazlerik ez azpieremurik ez duena
- b. Luzera finkodun eremu bat da, eta bertan kokatzen dira erregistro baten tratamendu informatikoan katalogazio-prozesua gauzatzeko beharrezkoak diren parametroak
- c. 28 posizioko luzera finkoa du
- d. Eremu aldagarri bat da, informazioa berreskuratzen laguntzeko erregistroaren aurkibide moduan diharduena



**39. Zer kodetzen du MARC 21 formatuaren 507 etiketak?**

- a. Sarbide-mugei buruzko oharra
- b. Zenbaketaren berezitasunei buruzko oharra
- c. Tesiari buruzko oharra
- d. Eskalari buruzko oharra, material grafikorako

**40. MARC 21 etiketa hauetatik, zein da errepikaezina (NR)?**

- a. 246
- b. 260
- c. 240
- d. 534

**41. Zer hiru eremu berri sortu ditu MARC formatuak RDA elementu berriei euskarria emateko?**

- a. 346, 347, 348
- b. 376, 377, 378
- c. 366, 367, 368
- d. 336, 337, 338

**42. Zer adierazten dute MARC 21 formatuaren 008 eremuko 35/37 posizioek?**

- a. Argitalpen-herrialdearen kodea
- b. Argitaratutako lehen liburukiaren data
- c. Dokumentuaren hizkuntzaren kodea
- d. Argitaratutako azken liburukiaren data

**43. Zer da MARC etiketa bat?**

- a. ISBDek eremu bakoitzerako definitzen dituzten elementu desberdinekin bat datorren kode bat
- b. Eremu baten edukiari buruzko informazioa ematen duen kode bat
- c. Programa informatikoak datuaren informazioa identifika dezan balio duen kode bat
- d. Luzera aldagarriko eremu bat



**44. Baieztapen hauetatik, zein da zuzena Z39.50ri dagokionez?**

- a. Informazioa berreskuratzea ahalbidetzen duen protokolo bat, gerora egingo diren kontsultetarako bilaketa-estrategiak gordetzeko aukera ematen duena
- b. Informazioa berreskuratzeko nazioarteko estandar bat da, bezero/zerbitzari egituran oinarritua, eta sistema informatikoen arteko interkonexioa errazten du
- c. Software bera erabiltzen duten sistemen arteko komunikazioa bakarrik ahalbidetzen du
- d. Interneten informazioa bilatu eta berreskuratzeko protokolo bat da

**45. HTMLn zer karaktere jartzen da azken etiketaren aurretik?**

- a. \*
- b. <
- c. /
- d. ^

**46. Zein dira metadatuaren estandarrak?**

- a. DC, MARC 21, MODS
- b. MARC 21, CDmeta, ISAAR
- c. MetaDTD, DC, ISAD
- d. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira

**47. Baieztapen hauetatik zein EZ da zuzena?**

- a. Dublin Corek aukera ematen du informazio bibliografikoa modu sinplean eta oso malguan deskribatzeko
- b. Metadatuak dokumentu digital bat berreskuratzeko datuak dira, eta dokumentuan bertan txertatuta daude
- c. ISO 3297 arauak metadatu-eskema baten egitura orokorra definitzen du
- d. Metadatuak sareko informazioa deskribatzeko eta berreskuratzeko nazioarteko estandar nagusia dira



**48. Dublin Coreri buruzko baieztapen hauetatik zein EZ da zuzena?**

- a. Dublin Core elementu guztiak aukerakoak eta errepikagarriak dira
- b. Dublin Coreren ezaugarriak dira sinpletasuna, hedagarritasuna eta nazioarteko adostasuna
- c. Dublin Core elementuak edozein ordenatan ager daitezke
- d. Dublin Core liburuzainek bakarrik erabiltzeko dago pentsatua

**49. Zein da erantzun zuzena Bizkaiko Foru Liburutegiaren OPACaren arabera?**

- a. Liburutegien arteko mailegua Bizkaiko Foru Liburutegiko erabiltzaileentzat baino ez da, bere funtsen artean eskuragarri ez dauden dokumentuen jatorrizkoak maileguan hartzeko edo kopia partzialak eskuratzeko
- b. Bizkaiko Foru Aldundiak liburutegi arteko maileguan mailegatutako liburuak liburutegi hartzaileen aretoetan kontsultatu beharko dira beti, etxez etxeko mailegua kanpo geratzen delarik
- c. Eusko Bibliographia, euskal egileei eta gaiei buruzko datu-base bibliografiko erreferentziala, Bizkaiko Foru Liburutegiaren katalogoan sartuta dago eta bertan kontsultatzen da
- d. 18 urtetik beherako pertsona fisikoek ezin dute eskatu Bizkaiko Foru Liburutegiko txartela

**50. Ondoren adierazten direnetatik, zer aukera ematen dio erabiltzaileari Bizkaiko Foru Liburutegiaren OPACak?**

- a. MARC XML formatuan bistara daitezke katalogoko erregistroak
- b. Katalogoko erregistroak hautatu eta posta elektronikoz esporta daitezke edo gailu lokal batean gorde
- c. Bilaketa baten emaitzak norberaren posta elektronikora bidal daitezke, erregistratuta egon gabe
- d. Erregistro bibliografikoak etiketatu edo baloratu daitezke, beste erabiltzaile batzuek kontsultatu ahal izateko

**51. Katalogazio Arauen arabera, zein ohar jasoko da lehenik ordenagailuko fitxategiak katalogatzean?**

- a. Fitxategiaren zer-nolakoei eta zertarakoari buruzko oharra
- b. Izenburu nagusiaren iturriari buruzko oharra
- c. Sistemaren ezaugarriari buruzko oharra
- d. Fitxategian ageri diren izenburuaren aldaketei buruzko oharra



**52. Datu-baseei dagokienez, zein baieztapen EZ da zuzena?**

- a. Datu-base bat informazio-multzo egituratu eta antolatu bat da, informazio-atalak elkarren artean modu ordenatuan erlazionaturik dituena geroago berreskuratu ahal izateko, eta euskarri elektronikoan biltegitratuta egon daiteke
- b. Datu-base guztiak daude euskarri elektronikoan biltegitratuta
- c. Datu-baseak dira Liburukliken katalogoa, Aranzadiren Westlaw eta Zarako on-line denda
- d. Datu-base batek hiru zati ditu: datuen multzoa, datu horiek biltegitratzeko lekua, eta kudeatzaile bat bitartekari diharduena datuen eta erabiltzaileen artean

**53. Sailkapen Hamartar Unibertsalean (SHU), zer da :: zeinua?**

- a. Erlazio-zeinu bat da, SHUko zenbaki bi edo gehiago konektatzeko erabiltzen dena
- b. Koordinazio eta eransketarako zeinu osagarri komuna da, SHUko zenbaki bi edo gehiago konektatzen dituena
- c. Ondorengo kontzeptua aurrekoarekiko mendeko erlazioa dela adierazteko balio duen zeinua da
- d. SHUko zenbakien konbinazio konplexu baten barruan azpitaldekatzeko erabiltzen den zeinua da

**54. Zer esan nahi du Sailkapen Hamartar Unibertsaleko "(083.824)" zenbaki osagarriak?**

- a. Antologiak
- b. Erakusketa-katalogoak
- c. Biltzarretako aktak
- d. Argazki-liburuak

**55. Zenbaki hauetatik, zein daude adierazita Sailkapen Hamartar Unibertsaleko taula osagarrietan?**

- a. Forma, toki eta ikuspegiari buruzko osagarri komunak
- b. Forma, talde etniko eta ikuspegiari buruzko osagarri komunak
- c. Hizkuntza, denbora eta ezaugarri orokorrei buruzko osagarri komunak
- d. Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira



**56. Zer datu-base da Sailkapen Hamartar Unibertsalaren bertsio eguneratu bakarra?**

- a. FBR
- b. DB-UCD
- c. UDC Consortium File
- d. MRF

**57. Lau Haizeetara, Bizkaiko Foru Liburutegiko Biltegi Digitala, komunitateetan egituraturik dago. Ondorengoetatik, zer komunitate dira biltegi horren parte?**

- a. Antzinako Funtza, Hemeroteka, Euskal Funtza
- b. Funtz Bereziak, Antzinako Funtza, Eskuizkribuak
- c. Hemeroteka, Antzinako Funtza, Material bereziak
- d. Inkunableak, Antzinako Funtza, Artxibo korporatiboak

**58. Zer metadatu-formatu erabiltzen du Lau Haizeetara Bizkaiko Foru Liburutegiko Biltegi Digitalak?**

- a. Open Link Data
- b. Unifor Resource Identifier
- c. Dublin Core
- d. MARC 21 XML

**59. Bizkaiko Foru Liburutegiaren 2019-2020 Zerbitzu-kartaren arabera, liburutegiak konpromisoa hartzen du gehienez ere epe jakin batean erantzuteko Interneten (web edo posta bidez) jasotako kontsultei, informazio eta orientazio zerbitzuaren bitartez. Zenbat eguneko epea da?**

- a. 2 egun baliodun
- b. 3 egun baliodun
- c. 5 egun baliodun
- d. 15 egun baliodun



**60. Nolako zerbitzua da Bizkaiko Foru Liburutegiak eskaintzen duen erabiltzaileentzako prestakuntza?**

- a. Aurrez aurrekoa
- b. Birtuala
- c. Aurrez aurrekoa eta birtuala
- d. Ez du eskaintzen zerbitzu hori

**61. Honako hauetatik, zein da liburutegi-sare bat?**

- a. Minerva
- b. Europeana
- c. Documat
- d. GEUIN

**62. Honako hauetatik, zein dira liburutegi-lankidetzarako nazioarteko erakundeak?**

- a. IFLA, UNESCO
- b. UNESCO, UBCIM
- c. IFLA, UNISIST
- d. ISO, NATIS

**63. Honako baieztapen hauetatik, zein da zuzena ISOri dagokionez?**

- a. Dokumentazioaren arloko erakunderik garrantzitsuena da
- b. Bruselan fundatu zuten, 1895ean
- c. Unisist programa gestionatzen du
- d. Normalizaziorako nazioarteko erakunde bat da

**64. Zer da bibliografia?**

- a. Eskuizkribuak, inprimakiak eta ezagutza intelektualerako baliagarriak diren beste argitalpen batzuk bilatzeaz, identifikatzeaz eta deskribatzeaz arduratzen den diziplina bat da
- b. Katalogo batean adierazitako dokumentuak ahalik eta ondoen erabiltzeko lan-metodoa da
- c. Idazkien aurkibide bat, tituluaren arabera soilik ordenatua
- d. Liburutegien eta bibliografia-errepertorioen historia lantzea helburu duen diziplina bat da



**65. Zeri buruzko informazioa ematen du bibliografiak?**

- a. Edozein gairen ezagutzan sakontzeko kontsultatu behar diren iturriak
- b. Bilduma bat eta non kokatzen den liburutegian
- c. Bilduma batzuk eta non kokatzen diren liburutegian
- d. Erabiltzaileak autore, izenburu edo gaiari buruzko daturen bat duenean, ea liburutegi batean edo batzuetan baduten liburu bat

**66. Non kokatzen zen kolofoa Mesopotamian?**

- a. Oholtxoaren amaieran, testuaren egilearen izenarekin
- b. Oholtxoaren hasieran, testuaren izenburuarekin
- c. Oholtxoaren amaieran, testuaren sailkapenarekin
- d. Oholtxoaren amaieran, testuaren izenburuarekin

**67. Inprentaren agerpenak zertarako aukera eman zuen?**

- a. Atariak eta merkataritzako markak agertzeko
- b. Liburuetako kolofoiak desagertu eta merkataritzako markak agertzeko
- c. Laburdura berriak agertu eta letra-motak bateratzeko
- d. Signaturak desagertu eta zenbaki arabiarren orrialdekatzea agertzeko

**68. Zein da baieztapen zuzena Espainiako lehen herri-liburutegiei dagokienez?**

- a. Espainian irakaskuntza zabaltzeko eta hobetzeko sortu ziren
- b. Mendizabalen desamortizazioaren ondoren, elizaren ondasunak kokatzeko sortu ziren
- c. Corverako markesaren ekimenez sortu ziren, Sustapen ministro zela
- d. Diputazioek mantendu zituzten, baina ez udalek

**69. XX. mendean, liburua merkaturatzeko modu berriak sortu ziren. Zein?**

- a. Katalogoak eta gordailutze-zerbitzuak
- b. Katalogoak eta folletoiak
- c. Katalogoak eta liburuen klubak
- d. Liburuen klubak eta eperako salmentak





**70. XX. mendean sortutako erakunde hauetatik, zein izan ziren Espainiako liburutegi publikoen garapenaren ardatz?**

- a. Kultura-etxeak eta liburutegien zentro koordinatzaile ziren probintzia-zentroak
- b. Kultura-etxeak eta Liburutegi Nazionala
- c. Liburutegien zentro koordinatzaileak eta Liburutegi Nazionala
- d. Gorteetako Liburutegia eta Liburutegi Nazionala

**71. Zein da baieztapen zuzena e-pub bati dagokionez?**

- a. Pdf formatuan oinarritzen da
- b. Liburu elektronikoaren jabetza formatu bat da
- c. DRM formatuan oinarritzen da
- d. International Digital Publishing Forumak proposaturiko formatu bat da

**72. Zer da autoedizio digitaleko plataforma bat?**

- a. Argitaletxeak egilearen esku jartzen duen zerbitzua da, argitalpen bat editatu aurreko kudeaketak egin ditzan
- b. Argitaletxe baten antzera jarduten duen plataforma bat da, non egileak digitalki argitaratu baitezake bere obra, liburuaren kostua ordaindu ondoren
- c. Egileari bere salmenten irabaziaren % 100 eskuratzeko aukera ematen dio plataforma bat da
- d. Egileari bere obra digitalki argitaratzeko aukera ematen dion plataforma bat da, baina egile-eskubideak eskatzen dizkio trukean

**73. Zer motatako lizentzia da copyleft?**

- a. Copyrightaren antzekoa, eskubide guztiak egilearen alde erreserbatzen baititu
- b. Egilearen eskubide morala aldatzeko aukera ematen duen lizentzia bat
- c. Obra baten kopia bat hartzen duenari hura erabiltzeko aukera ematen dion lizentzia, baina inola ere ez hura aldatzekoa
- d. Obra baten kopia baten hartzaileari kopia hori erabiltzeko, aldatzeko eta banatzeko aukera ematen dion lizentzia bat



**74. Euskadiko Liburutegiei buruzko 2007ko urriaren 26ko 11/2007 Legearen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, liburutegi-zerbitzuak sustatu eta hobetzeari dagokionez:**

- a. Beste autonomia-erkidego batzuetako liburutegi-erakundeekin bakarrik jardun ahal izango du lankidetzan
- b. Estatuko liburutegi-erakundeekin bakarrik jardun ahal izango du lankidetzan
- c. Lurralde historikoetako liburutegi-erakundeekin bakarrik jardun ahal izango du lankidetzan
- d. Lurralde historikoetako eta beste autonomia-erkidego batzuetako liburutegi-erakundeekin jardun ahal izango du lankidetzan

**75. Euskadiko Liburutegi Sistemako liburutegiek:**

- a. Langileei eta funtsei buruzko datuak eman behar dizkiote Liburutegi Zerbitzuari, baina ez aurrekontuei buruzkoak, eurenak baitira
- b. Ezin dute mugatu funtsen erabilerarik
- c. Publikoarekiko tratuan soilik bermatu behar dute Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen erabilera
- d. Langileei, funtsei eta aurrekontuei buruzko datuak eman behar dizkiote Liburutegi Zerbitzuari

**76. Bizkaiko Foru Liburutegiaren Erabilera-arauak onartzen dituen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2014ko maiatzaren 6ko 60/2014 Foru Dekretuaren arabera, liburutegiak doan ematen ditu zerbitzu batzuk. Zein?**

- a. Interneteko sarbide-zerbitzua eta erabiltzaileen prestakuntza-zerbitzua
- b. Liburutegien arteko mailegua eta informazio bibliografikoaren zerbitzua
- c. Erreferentzia-zerbitzua eta bilaketak inprimatzeko zerbitzua
- d. Erabiltzaileen prestakuntza-zerbitzua eta liburutegien arteko mailegua

**77. Bizkaiko Foru Liburutegiaren Erabilera-arauak onartzen dituen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2014ko maiatzaren 6ko 60/2014 Foru Dekretuaren arabera, zer akreditazio behar da funtsak kontsultatzeko eta liburutegi-zerbitzuak erabiltzeko?**

- a. «Bibliolagun» erabiltzaile txartela, eta, erabilera zehatzetarako, berriz, nortasun-agiri nazionala, pasaporte edo egoitza-txartela
- b. Bakarrik «Bibliolagun» erabiltzaile txartela
- c. Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko erabiltzaile-txartela
- d. Bakarrik nortasun-agiri nazionala, pasaporte edo egoitza-txartela



**78. Zer funtsetarako irispidea izan daiteke Bizkaiko Foru Liburutegiko Ikertzaileen Aretoan?**

- a. Erreserbako funtsa (1801. urtea baino lehenagokoa) eta faksimileen funtsa
- b. Grabatuen funtsa eta 1958. urtea baino lehenagoko funts inprimatua
- c. Erreserbako funtsa (1831. urtea baino lehenagokoa) eta 1956. urtea baino lehenagoko funts inprimatua
- d. Ikertzaileen erreferentzia eta 1958. urtea baino lehenagoko funts kartografikoak

**79. Honako argitalpen hauetatik, zein daude lege-gordailutik salbuetsita?**

- a. Liburuak, liburuxkak eta eskaeraren arabera inprimatutako argitalpenak
- b. Iragarki-kartelak, egutegiak eta agendak
- c. Mapak, planoak eta posta-zigiluak
- d. Agendak, egutegiak eta prentsa-txostenak

**80. Nork kudeatzen du lege-gordailuaren administrazioa Euskadin?**

- a. Euskadiko Bibliografia Gordailuak eta Euskadiko Kontserbazio Zentroak
- b. Lurralde historikoetako foru-liburutegiek eta lege-gordailuko bulegoek
- c. Euskadiko Kontserbazio Zentroak eta Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareak
- d. Lege-gordailuaren bulegoek eta Euskadiko Kontserbazio Zentroarenak

**ERRESERBAKO GALDERAK**

**81. Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 2. artikulua arabera, zein da erantzun zuzena ondorengo hutsuneak betetzeko? Publikotasun aktiboari buruzko arauak erakunde pribatuei ere aplikatuko zaizkie, aurrekontu-ekitaldian zehar Bizkaiko Foru Aldundiaren ..... euro edo gehiagoko laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen badituzte edo haien urteko diru-sarreraren % ..... Aldundiaren laguntzetatik edo dirulaguntzetatik badator, betiere gutxienez ..... euro badira.**

- a. 50.000 euro/ehuneko 60/15.000 euro
- b. 100.000 euro/ehuneko 40/5.000 euro
- c. 500.000 euro/ehuneko 50/20.000 euro
- d. 50.000 euro/ehuneko 50/30.000 euro



**82. Zein da baieztapen zuzena Sailkapen Hamartar Unibertsalean apostrofoa duten serieak ('0/'9) kontuan harturik?**

- a. Batez ere analitikoak edo funtzio-bereizleak dira
- b. Sintesi edo integratze funtzioa dute
- c. Objektu errepikarien multzoak eta azpimultzoak eskaintzen dituzte
- d. Osagarri komunak lh taulan agertzen dira

**83. Ekoizpen eta sortze literario, artistiko, zientifiko eta teknikoak:**

- a. Espainiako Konstituzioan jasotako politika sozial eta ekonomikoaren printzipio gidari bat da
- b. Espainiako Konstituzioan jasotako politika sozial eta ekonomikoaren printzipio gidari bat da, eta kasu askotan murriztu daiteke, alde aurreko zentsuraren bidez
- c. Oinarrizko eskubide edo askatasun publikoa da, Espainiako Konstituzioan jaso, eta ezin da inola mugatu alde aurretiko zentsuraren bidez
- d. Ez da beren-beregi agertzen Espainiako Konstituzioan

**84. Zein da erantzun zuzena?**

- a. DCn (Dublin Core) elementuak ez dira errepikagarriak
- b. DCMI (Dublin Core Metadata Initiative) delakoak prestaturiko metadatu-eredu bat da Dublin Core, baliabide elektronikoak deskribatzeko eta haiek berreskuratzen laguntzeko oinarrizko elementuak definitzera bideratua
- c. Dublin Core izena Dublinetik hartua da (Irlanda), hiri horretan egin baitzen, 1995ean, garai hartako metadatu eta web-orrietako adituen lehen mundu-bilera
- d. Dublin Core 15 definizio semantiko deskribatzaile derrigorrezkoak osaturik dago, zeinen bidez esanahi semantikoa transmititu nahi baitaie

**85. Zein da baieztapen zuzena onlineko argitalpenei dagokienez?**

- a. Lege-gordailua eta ISBNa esleitzen zaizkie
- b. Legezko gordailua esleitzen zaie, baina ez ISBNrik
- c. Kasu jakin batzuetan lege-gordailua esleitzen zaie, baina ez ISBNrik
- d. Ez zaie lege-gordailurik esleitzen, baina halakoan editoreek edo ekoizleek ISBNa eskatu ahal izango dute



**86. Zein da baieztapen zuzena Eusko Bibliografiari dagokionez?**

- a. Lege-gordailuan soilik oinarritutako euskal bibliografia bat da
- b. Eusko Ikaskuntzak bildutako bibliografia-errepertorio bat da
- c. Ángel Allende Salazarrek bildutako bibliografia-errepertorio bat da
- d. Atzerrian, Espainian eta Euskal Autonomia Erkidegoan argitaratutako aldizkari-artikuluz osatua da gehien bat

**87. Saillkapen Hamartar Unibertsaleko zein zenbaki esleitzen zaio Bilboko liburu-denda bateko liburu zaharren katalogo bati?**

- a. 017.34 (460.152.2 B.)
- b. 017.2 (460.152 Bilbao)
- c. 017.43 (460.152.2)
- d. 017.11 (460.152 B.)

**88. Bizkaiko Foru Liburutegiaren erabilera-arauak onartzen dituen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2014ko maiatzaren 6ko 60/2014 Foru Dekretuaren arabera, nork du baimena Bizkaiko Foru Aldundiaren Liburutegiko ondare-funts antzinakoetara irispidea izateko?**

- a. Doktore-tesia egiteko ikertzen ari direnak
- b. Jatorrizko azterlan monografikoak edo bigarren mailako bibliografian edo dibulgaziozkoan oinarritutako lanak egiteko ikertzen ari direnak
- c. Ikasketak zabaltzeko ikastaroak, birziklatzekoak edo antzekoak prestatzen ari direnak
- d. Oposaketak edo antzekoak prestatzen ari direnak

**89. Katalogazio Arauen arabera, zeren bidez egingo da jurisprudentzia-bildumen sarrera nagusia?**

- a. Argitalpenaren arduradunaren edo biltzailearen bidez
- b. Dagokion izenburu hautatuaren bidez
- c. Izenburuaren bidez, bi auzitegiren egintzak direnean
- d. Dagokion auzitegiaren izenaren bidez



**90. Zer da katalogoa?**

- a. Liburuei buruzko zientzia edo ezagutza da
- b. Errepertorio bat egitea ahalbidetzen duen teknika da
- c. Errepertorio bat egitea ahalbidetzen duen metodologia da
- d. Liburu bat bere deskribapen eta signaturaren bidez identifikatzea ahalbidetzen duen zerrenda da